

Aretxagazeta

Aretxabaleta • 2001eko apirilaren 6a • 211. zka.

Urkuluko uretako arrantzan



Irudimenarekin, eskulanak egiteko kutxak, kajonerak, bandejak, pertxeroak, komuneko altzariak... margotu ditzakezu. Eta nahiago izanez gero, geuk margotuko dizkizugu.



AZKARATE AROZTEGIA

ARETXABALETA 943 77 01 24
BERGARA 943 76 47 19
Telleria, 19 B-0-2 B-0-3
BERGARA

**Ateak, leihoak,
horma armairuak, tarimak
eta parketak**

ARDATZA
Brikolaketa


Tel.: 943 76 18 93

LEIBAR KARRINDEGIK Mitarre, 1 • Tf. 943 771379 Lorandendi, 1 • Tf. 943 791833	ERRASTI Kioskoa Durana, 19 • Tf. 943 799876
Maritxu Mertzeria Araba Ibilbidea, 24 Tf. 943 79 23 53	GEMES EDERTZE ARETOA Durana, 40 Tf. 943 799918
Jox HARATEGIA Lorandendi, 1 Tf. 943 79 71 69	Santa Kurtz Janari denda Tf. 943 79 28 19
MartiW BIZIKLETARIA • BIKIETARIA Mitarre, 16 • Tf. 943 79 01 72	CRUCIERTA MERTZERIA Erekabarren, 3 • Tf. (denda) 943 79 78 63 (otzila) 943 79 06 84
FARMA BIZI Lorandendi, 8 Tfno-Fax: 943 771818	IRIARTE Umeen denda eta lantzeria Durana, 8 • Tfno: 943 79 10 96
MIREN & ZURINE BIZIKLETARIA BIZIKLETARIA Ozalora kalea. Eliza aurrealdean Tfno: 943 771357	TXILARRA ELIKADURA BEREZIA Durana, 35 Tf. 943 79 10 15 Lorandendi, 9 Tf. 943 79 44 28
IMANOI JANARI DENDA Gorbea kalea • Tfno: 943 79 05 83	Irudi ELIAPENKETA ELIQUERIA MUTXA Ereka Barron, 20 b. • Tf. 943 798090
ALBOKA Gazte moda Durana, 36 • Tfno: 943 771610	HERRASTI AKEITA ETXEA CAFES Analar kalea, 7 • Tf. 943 79 32 83
RITZORROTZ ELECTRONICA Autorekordatu eta mantentzen dituzte. Irudiaraz dituzte. Arizena, arizena koloretan eta parabolak. Taldetako arizena dituzte. Sateko diktatu. Ozalora, 14 • Tfno-Fax: 943 791610	Zurbia Oinetakak Paltzak • zapatak • gerrizak Mitarre, 14 Tfno: 943 79 16 00
NERIAN LORADENDA Tfno.: 943 79 70 66	PAPERDENDA IBER LOTERIA Ozalora, 2 Tfno: 943 79 79 24

ARETXARTEK
bi bikoterentzako bainuetxe batean astebukaerako egonaldia zozketatuko du.



201eko maiatzaren 11n izango da zozketa



ZAPE - arretgintza - artesania CENTRO COMERCIAL LEZAMA, 14 TFNO. 943 770792	IBARRA ESTANKOA PREINTESA KROASANTERIALA Bizkaia, 3 • Tf. 943 792377
ASENSIO JANTZIDENDA Mitarre, 12 • Tfno.: 943 79 10 72	Lasai Masaje terapèutic Postura ortèdica eta egokitzen dituztenak Lezama merkatal zentrua Santa Kurtz, 24 • Tf. 943 770434
Fruitan eta txarkuterian espezialitate Angelines AUTOZERBITZUA Mitarre, 16 • Tfno.: 943 79 61 42	JOSU Urdategia Gozategia Kroasantegia Janari prestatuak Mitarre, 1 • Tf. 943 77 03 08
ARETXABALETA Fontacteria ITURGINTZA Durana, 16 • Tfno.: 943 79 17 53	Larrad Peluqueria y Salón de belleza -LUZATZEAK -MIKROPIGMENTAZIOAK -DEPLAZO ELEKTRIKOA Lorandendi, 11 • Tf. 943 799079
G GARBITZE Lorandendi 6, Behea • Tf. 943 79 53 61	Etxabe harategia Durana, 4 • Tf. 943 79 16 61
Jauregi okindegia Ozalora, 10 Tf. 943 79 57 47	BEIGANO OPTIKA Lorandendi, 10 • Tf. 943 79 98 21
zeniz liberulendak Hernko Plaza, 10 Tf. 943 79 75 53	Gertu Jakien elaborazioa eta salmentza Mitarre, 10 • Tf. 943 770612
ALDE ARETXABALETA Murubide IFA Murubide, 4 • Tf. 943 79 91 76	KURRIK Umeandako moda Lezama merkatal zentrua, 15 Tf. 943 77 14 86
MARI KARMEN KONPONKETAK Errekabarren • Tf. 943 79 59 85	Fruteria Errekabarren Frutadenda LORANDENDI, 10 TEL. 943 79 01 36 30550 ARETXABALETA
XUME leizadenda Errekabarren, 14 • Tf. 943 79 11 19	1-10 LORANDENDI, 10 TEL. 943 79 01 36 30550 ARETXABALETA

Gaztetxia ixtia ze pentsetan jatzu?



Ugutz Usandizaga

Nik uste dot gaztetxia zabalik mantentzia gura dala, baina beste modu batien, ez oin dauen moduen.




Rosa de la Hidalga

Ez dakitt Aretxabaletako gaztetxiak zela funtzionetan dauen. Gazteiek lokal bat eukitzia ondo dau, beti be, dauzen arauak errespetetan badie.



Asier Antia

Txarto. Ni egunero egoten naz gaztetxien, eta ez jat ondo pentsetan. Arrazoiak ez jat justuak pentsetan.



Alfonso Berrocal

Ez ondo eta ez txarto. Egia esan, ez dakitt zegaitik itxi biher dauen. Gaztetxia gazteiek dibertitzeko leku bat dala uste dot.



Eladia Nevado

Ez dot gehiegi entendiruten egoeria, baina gazteiek leku bat aukittia ez dau txarto.



Juan Luis Jurado

Ezin dot ezer garbirik esan. Kartel eta pankarta batzuko ikusi dittut, baina ez naizenez jueten, ez dauket zuzeneko informaziñoik.

Aretxagazeta

211. zenbakia. 2001eko apirilaren 6an.
Durana 11, 151 postakutxatila.
ARETXABALETAKO.
Tel: 943 79 86 21.
Faxa: 943 77 18 54
e-mail: aretxagazeta@euskalnet.net

Argitaratzailea: Aretxabaletako komunikabideak-Loramendi elkartea.

Lehendakaria: Edorta Mendieta.

Erredakzio-kontseilua: Mireia Uribetxebarria, Goretti Ayastuy, Ibon Agirre, Ana Hidalga, Fernando Berrizbeitia.

Erredakzio arduraduna eta publizitate arduraduna: Amagoia Lasagabaster eta Iratxe Bengoa.

Kolaboratzaileak: Mikel Arroiabe, M. J. Aretxaga, Joseba Lopez de Armentia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Felis Beltran de Heredia, Rosa Del Aguila, Amaia Berezibar, Murruxiko mendi elkartea, Zaraia mendi taldea, Loramendi E. E., Udala.

Banatzzaileak: Aitor Urrutia, Iratxe Arbulo, Leire Otaegi.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.
Tirada: 1.500 ale.
Aretxagazeta paper ekologikoa egiten da.
Lege gordailua: SS378 / 94. ISSN: 1134-2609.

Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.



Aretxabaletako Udala,
Gipuzkoako Foru Aldundia eta
Eusko Jaurlaritzako kultura
sailaren laguntzaz

BALITAKUK



Mikel Arroiabe

Hikaz berbetan

Aretxagazeta



ERREKA GARBITZEN

Martxoaren 27an fin-fin ibili ziren udaletxeko langileak Deba ibaia garbitzen. Loramendin hasi eta Santutxuraino heldu ziren garbiketa lanetan. Besteak-beste, ertzak garbitu eta ur azpian pilatzen diren hondakin guztiak kentzen aritu ziren goiz osoan. Guztira, zaborrez betetako dozena bat poltsakada atera zituzten errekatik.

Udalak urtero egiten du erreka garbiketa. Eta gehienetan, batutako zakarrak herritarrok botatzen ditugunak izan ohi dira.



Joan den urtean jende ugari hartu zuen parte gurutzbidean

Aste Santuko ospakizunak antolatu ditu parrokiak

Apirilaren 7an, Arantzazura egingo den pakearen aldeko ibilaldiarekin hasiko dira Aste Santuko ospakizun erlijiosok. Gero, Pazko Domekara bitartean, makina bat ekintza antolatu dituzte parrokiako lagunek. Erramu Domekan, erramuen bedeinkapena egingo da, eta Asteazken Santuan, elkarteko penitentzia ospakizuna ospatuko da. Eguen Santuan,

ordea, Jaunaren azken afariko eukaristia izango da eguneko lehenengo ekitaldia. Horren ondoren, eukaristia nagusia eta otoitzak egingo dira. Eguakotx Santuan, duela urte gutxi berreskuratutako gurutzbidea egingo da. Gero, Pazko Domekararte, gaubelia eta gorrespenak egingo dira. Eukaristia guztiak domeketako orduetan egingo dira.

GOIENAREN AURKEZPEN PUBLIKOA

Martxoaren 31an egin zuen jendaurreko aurkezpena Goiena komunikazio zerbitzuak izeneko kooperatibak. Ehundik gora lagunek hartu zuten parte ekitaldian. Tartean, Anjel Bergaretxek, Aretxabale-tako alkateak. Hitzaldian, Goienaren garrantzia azpimarratu zuten, Euskal Herriarentzako eredu izateaz gain, Debagoienean ere, ezinbesteko funtzioa betetzen duelako. Gaur egun, gainera, euskarazko herri komunikabiderik sendoen da Goiena kooperatiba.



BODEGOI taberna

- Menuak
- Karta
- Bokatak
- Pintxoak...

Zatoz gure
sukaldea
ezagutzera

Zapatuetan irekita

Nafarroa, 6. Tel.: 943 79 20 45

DOIKALSE

Elektroerosio
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
ARETXABALETA
Tel.: 943 79 82 44

PAGALDAI

Opari denda
Lurrindegia

Durana, 33 ☎ 943 79 10 14



MEMESA

Industri hornidurak

Tel.: 943 71 24 11
Fax: 943 71 21 19
ARETXABALETA

**UMEENDAKO
MODA**

Lezama merkatal
zentrua, 15
943 77 14 86



Gaztetxeko lagunek, dekretuari eta gaztetxea uzteko erabakiari prentsaurreko baten bitartez eman zioten erantzuna. Bertan, besteak beste, alkatearekin elkarrizketa bidez arazoa konpontzeko nahia azaldu zuten

Oraingoz udalak ez du Gaztetxea itxiko

Martxoaren 27an, udaletxeak gaztetxea uzteko dekretua jakinarazi zuen. Ordutik, hainbat ekintza eta mobilizazio egin dira herrian. Izan ere, Aretxabaletako Gazte Asanbladakoek gaztetxea ez zutela utziko argi azaldu zuten lehenengo unetik. Alkateak, barrez, bere erabakia ere, tinkoa zela aipatu zuen. Udaletxeak, Galartzan adostutako hitzarmena ez betetzeagatik hartu zuen gaztetxea uzteko erabakia. Hitzarmenean, Gaztetxeak errespetatu beharreko ordutegiak eta lo-

kalaren erabilera finkatu ziren. Hala nola, kultura ekitaldiak egin beharra eta tabernaren itxiera eskatu zuten udaletxeak. Gaztetxeko lagunek, dekretuari eta gaztetxea uzteko erabakiari prentsaurreko baten bitartez eman zioten erantzuna. Bertan, besteak beste, ordutegiak errespetatzen direla, kultura ekintzak ugari egin dituztela gaur arte, eta alkatearekin elkarrizketa bidez arazoa konpontzeko nahia azaldu zuten. Pasa den asteburuan ere, mobilizazio ugari egin zituzten

gaztetxearen itxieraren aurka protesta egiteko. Horren ondoren, astelehenean bertan, gaztetxeko lagunek 900 sinadura batu eta udal-etxera eraman zituzten. Egun berean, udalak, gobernu batzordera eraman zuen gaia. Gero, han erabakitakoa idatzi baten bitartez kaleratu zuen asteartean. Bertan, konponbide bat bilatzeko asmoz, gaztetxearen itxiera apirilaren 9arte luzatuko duela jakinarazi zuen. Beti ere, taberna kendu eta ordutegia errespetatzeko baldintzarekin.

■ **UDAL LARRIALDIETARAKO PLANA** Azken osoko bilkuran Aretxabaletarako udal larrialdiatarako plana onartu zen. Plangintzan, herrian edozein larraldi edo alarma egoera gertatuz gero hartu beharreko neurriak zehazten dira. Uholde, sute edo beste edozein kasutarako gutzia gertu egon dadin egiten du urtero udalak txostena. Besteak beste, eta adibide bat jarzearren, noizbat, helikoptero batek herrian lur hartu beharko balu, leku hori zein izango den zehazten da. Txostena Foru Aldundiaren laguntzarekin egin da.

■ KURTZEBARRIKO LITERATURA TOPAKETA

Urtero moduan, Kurtzebarri eskolak literaturari eskainitako ekitaldiak egin zituen. Irakurzaletasuna bultzatzeko asmoz, egitarau zabala kaleratu zuten. Martxoaren 26an ipuin kontalariekin hasi, eta apirilaren 5ean bukatu zuten txontxongilo emanaldi batekin. Tartean, besteak beste, solasaldiak, hitzaldiak eta bideo forumak egin zituzten. Ekitaldi nagusia, ordea, X. irakur maratona izan zen. Bertan, aurreko ekitaldietan bezala, jende ugari hartu

sukaldeko altzarien eta horma armairuen fabrika

Super
Armeko

- Lantegiko prezioak
- Erakusleku handia: 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Nobedade denak

Kataide poligonoa, 6. pabilioia.
ARRASATE Tel.: 943 71 25 08

**ZARAIA
TABERNA**

MANTEKA ANAIK

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan
Tel.: 943 79 88 95




■ MUNDUKIDEKO TRUKE PROGRAMA Dagoeneko euren lurraldera bueltatu diren arren, hilabete inguru egon dira hegoameriketako lagunak Debagoienean. Mundukidek antolatutako truke programaren bitartez etorri ziren aurten ere, 13 kideak. Hemen, kooperatibaren eta irakaskuntzaren inguruko informazio ugari batu dute gero euren herrialdean aplikatzeko. Guztiek, esperientzia baikor bezala baloratu dute gure artean pasatako egunak.

Haur liburuaren nazioarteko eguna ospatu zuten liburutegian

Apirilaren 2an haur liburuaren nazioarteko eguna ospatu zen. Herriko liburutegiak egun hori ospatzeko, eta bide batez, umeengan irakurzaletasuna bultzateko asmoz, irakurketa egunkaria izeneko lehiaketa jarri zuen martxan. Bertan, Otiak 6 urte bitarteko umeek, irakurri edo ikusi duten liburu ba-

ten inguruko marrazkia egin behar zuten. Liburutegiko arduradunek, lehiaketa honen berri emateko, Kurtzebarri eta Santa Rita ikastetxeko haurrak gonbidatu zituzten. Bisitan, liburutegia goitik behera erakustez gain, udal liburutegiko bazkide egiteko proposamena ere luzatu zitzaizkien haur guztiei.



Herriko eskoletako haurrak izan ziren bisitan liburutegian

HAUTESKUNDEETARAKO ERROLDA IKUSGAI

Maiatzaren 13an ospatuko dira gobernu barria osatzeko hauteskundeak. Botua emateko udal erregistroan daude gure datuak. Errolda hori dagoeneko ikusgai duzue udalwebgunean. Beraz, datuak ondo dauden ikusi gura badituzue udaletxetik pasa zaitezkete.

LANBIDE HEZIKETAREN INGURUKO LIBURUA

Arizmendi elkarteak, Oñatiko Eteorekin, Arrasateko eskola politeknikoarekin eta Eskoriatzako irakasle eskolarekin lankidetzan "Lanbide Heziketa Debagoienena 2001-2002" izeneko liburua aurkeztu zuen joan den martizenean. Hizlarien artean, eskola desberdinetako arduradunak egoteaz gain, ikasleek praktikak egiten dituzten lantokietako arduradunak ere izan ziren.

"ARINSA"

Aretxabaletako industrialdea S.A.

Basabe poligonoa "EO-10"
Tel.: 943 79 62 80/Fax: 943 79 76 19

LEIBAR

arrandegia



Mitarte Kalea, 1
Tel.: 943 77 13 79

ARGAZKI DENDA

UrKiola

Herriko plaza, 5-behea
Tel.: 943 79 39 20

Estudioa
Jaunartzeak
Ezkontzak
Argazki digitalekin lanak

Albunak
Argazki kamarak
Markoak...

Jose Mari
bodegoia

Eguneko menua

Nafarroa, 6
943 79 20 45
Aretxabaleta

Bazkari
eta
afariak

MATIKUA

Azatza auzoa
Tel.: 943 79 16 68

Aberri egun bateratua ospatuko da aurten ere

Joan den urtean moduan Aste santuan ospatuko da aurten ere aberri eguna Euskal Herrrian. Jende asko oporrak hartu eta kanpora joango da egun batzuk pasatzera. Baina, pazko domekan, martxoaren 15ean, herrian gelditzen zaretenok, herrian bertan aberri egun bateratua ospatzeko aukera izango duzue. Iaz bezala, aurten ere, herriko lagun talde bat izan da aberri eguna antolatzen ibili dena. Aberri egun bateratua izango da. Alderdi eta desber-

dintasun politikoak alde batera utzi eta euskaldunoi dagokigun legez ospatuko den jaia izango da. Herriko abertzale guztien partehartzearekin egin gura da aurten ere egun hau, izan ere, asmo horrekin sortu baitzuen Luis Aranek, Sabino Aranaren anaiak, aberri eguna 1932. urtean. Orduan, Bilbon 65.000 pertsona elkartu ziren.

Iazko aberri eguna

Ez ziren ekintza ugari egin joan den urteko aberri egu-

nean, hala ere, egin zirenak oso esanguratsuak izan ziren. Garai baten ikurrinak zuen garrantzia gogoratu, balkoi ugari bete ziren zuri, gorri eta berde kolorez. Meza ostean ere, ikurrinari ohore eginez, udaletxetik irten eta udaletxe zahar-rainoko ibilbidea egin zuten herritarrek. Orduan ikurrina Joakin Lizarraldekeraman zuen. Udaletxe zaharrean, dantzari eta bertsolariekin agurra egin zitzaion ikurrinari. Eguna bukatzeko, Matikuan egin zen bazkaria.



ABERRI EGUNERAKO EGITARAUA

Aurtengoan, apirilaren 15ean ospatuko da herrian aberri eguna. Goizeko 11:00etan, herria ondo esnatzeko asmoz, itxafleroak jaurtiko dira. Gero egurdi partean txalaparta soinuak izango dira nagusi. 12etan puntuan meza emango da Mitartean. Elizkizuna bukatu bezain pronto, berriz ere, txalaparta ekitaldia egingo da. Aintzinako euskaldun soinu horiekin irtengo da ikurrina udaletxetik. Kalejiran udaletxe zaharreraino eramango dute gainera. Han agurra egingo zaio, eta balkoian jarriko da. Era berean, antolatzaileek komunikatu bat irakurriko dute bertatik. Horrez gain lerro hauetatik ikurrinak balkoi eta elkarteetan jartzera animatu gura dira herritarrak.



Joan den urtean bezala, aurten ere Aberri egun bateratua ospatuko da herrian.

BEGI ONDO

optika

Loramendi, 10
Tel.: 943 79 98 21

IBARRA
estankoa



PRENTSA ETA
IKASMATERIALA

Egunero zabalik
Bizkaia, 3 Tel.: 943 79 23 77

Jauregi
Okindegia

Otalora, 10
Tel.: 943 79 57 47

BENGOA
URDAITEGIA

Bertako okelak
eta mortzilak

Durana, 9
Tel.: 943 79 19 79



■ KORRIKAKO EKITALDIAK

Korrika goizaldeko ordu 2:30ean iritsi arren, jendea erraz batu zen euskararen aldeko martxara. Guztira 10 taldetako ordezkariak eraman zuten testigua. Korrikaren aldeko oihuak nagusi izan ziren herriko hiru kilometrotan zehar.

Eskumako argazkian, barrez, arratsaldean egin zen korrika txikia duzue.

Zaraia eta Murruxiko mendi taldeen eskutik, bestalde, mendi urteera egon zen domekan. Untzilan argazki polit hau atera zuten.




■ ANJEREKIN KANTUAN

Kontzertu bikaina eskaini zuen Anje Duhaldek aurreko astebukaeran. Oso txistoso etorri zen gurera, eta Kurtzebarri eskolako aretoan batu zirenek barre eta kantatzeko aukera ederra izan zuten.

■ AIKIDO ERAKUSTALDIA

Joan den astean aikido eta aerobic txiki erakustaldia izan zen Zainduz osasun eta fitness zentruan. Aikidoak arrakasta handia izan du, eta lagun ugari ari da modalitate hau ikasten.



Arientza auzoa
Aretxabaleta
Tfnoa: 943 79 17 51
Mitartegari
Jatetxea



BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Mobiliario
ARENAZA

. ALTZARIAK
. DISEINUA
. APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABAleta

IZOTZ
Taberna

Mitarte, 16 • Tel.: 79 73 65
Aretxabaleta

Arrasatekoa da M^a Pilar Sagasta irakaslea. Ingeles filologia egin ostean, Britainia Handira joan zen masterra egitera. Honaitzulitakoan berriz, gogor jarraitu zuen lanean. Horren adierazgarri, orain urte bete argitaratu zuen tesi doktora.



M^a Pilar Sagasta Hizkuntzei buruzko tesiaren egilea

■ **Nolatan aukeratu zenuen zure tesi doktora egiteko gaia?**

■ Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean egiten dut lan. Beraz, egunero ikasten eta irakasten diharduten gaia da nire tesiaren oinarria. Horrez gain, elebiduna naiz eta atzerrian ibili naiz hizkuntzak ikasten. Gainera nire ustez, premia handia zegoen horrelako ikerkuntza bat egiteko.

■ **Zeintzuk izan dira tesi honen bitartez atera dituzun ondorioak?**

■ Ondoriorik garrantzitsuenak elebitasunak 3. hizkuntza bat ikasterakoan duen garrantzia da. Gero eta elebitasun maila handiagoa izan ikasleak, orduan eta

hobeto menperatzen da 3. hizkuntza. Beste ondorio bat zera da, hizkuntza minoritarioak, gure kasuan euskarak, 3. hizkuntzaren ikasketa suspertzen duela. Eta azkenik, bi hauekin lotuta, nire tesian, hizkuntzen arteko menpekotasuna dagoela argitu dut. Hau da, hizkuntza bat ikasterakoan hartzen dituzun gaitasunak beste hizkuntza baten ikasketari eragiten diotela.

■ **Ikerketa egiteko Kurtebarri eskolarekin egin duzu lan, ez da horrela?**

■ Bai, hango ikasleek eta batez ere zuzendariak asko lagundu didate nire tesia egiterako orduan. Eskola aproposa zen horrelako ikerketa bat egiteko, eta guztiei nire esker ona adierazi nahi diet.

■ **Haurrak garenetik elebidun izateaz gain, 3. hizkuntza bat irakasten digute, hori positiboa da?**

■ Eskola gehienetan, 4 urtekin hasten dira ingelesa irakasten. Askotan esan ohi da, horrek kalte egiten diola gure ama hizkuntzari, baina horren frogarik ez dago. Gainera nire tesiaren arabera, lehen esan bezala, hizkuntza bat jakitean beste bat errazago ikasten laguntzen du. Beraz ezin esan hori positiboa ez denik.

■ **Zure ustez, abantaila ala desabantaila da jaiotzetik elebidun izatea?**

■ Askotan jaiotzez elebidunak gara, baina ikusi beharrekoa zera da; bi hizkuntza horiek nola garatu ditugun gure bizitzan zehar. Per-

tsona batzuk hizkuntza bakarra indartzen dute eta bestea ez dute lantzen. Berdin da jaiotzez zenbat hizkuntza dakizkigun, garrantzitsuen erabilera bera da. Haur batek bere amarekin ingelesez hitz egiten badu, baina eskolan euskara bakarrik erabiltzen badu, ume horrek akademikoki ez du ingelesa ondo menperatuko.

■ **Zein harreman izan ditzakete, ingelesak, gaztelarak eta euskarak?**

■ Harreman oso estua dute, izan ere, eskolan euskaraz ikasi duten guztia 2. hizkuntzara transferitu edo eramango du ikasleak. Horregatik, eskola guztietan, aldi berean planifikatu behar liratezke hizkuntza ikasgai guztiak.

Lehengo garaiak hobeak?

Gizakiok apartak gara gaitzak eta okerkeriak aipatzen. Orain dena txarra dela dirudi. Egunkari, aldizkari eta bestelako komunikabideetan berri txarrak dira nagusi. Amildegira goazela esan liteke, hainbat gaitz ezagutu eta gero.

Hala ere, nik beti esan ohi dut berri on gehiago gertatzen dela munduan txarrak baino. Ez dirudien arren, on asko egiten da gizakion artean; ziur nago gainera, inoiz baino on gehiago egiten dela gaur egun. Egia da bai, ez dela nabaritzen; gehienetan, ekintza ixilak baitira eta horrela izan behar du gainera.

Horretaz gain, ankerkeriak, zapalkuntzak, bortxakeriak eta abar bakarrik dira albiste. Gure berri emaleek ez dute antza denez gorantz egiten, gizakion zikinkeriak isladatu eta azpimarratu gabe.

Ez ote du inork sortuko berri onak soilik emango lituzkeen aldizkari edo egunkariaren bat? Haize fresko ederra ekarriko liguke denoi, beharbada, eta, nork daki?, arrakastatsua ere izan ote daitekeen.

Dena dela, aurreko guztia pentsatuta ere, badut kezka handi bat ipar-mendebaldeko herri aberastuekiko. Izan ere, azken 30 urte hauetan pozoin ikaragarria darabilgu, hainbeste urtetan landutako osasuna kinka larrian utz dezakeena: kontsumismoa.


Behartsu izatetik aberats izatera igaro gara, urte gutxitan. Gure lanaren fruitua da noski, neurri batean; baina beste neurri handi batean hainbat herriren zapalkuntzak dakarkigu guri aberastusun hori, herri horiek aldi berean gero eta txiroago bihurtuz.

"Lapurreta" honetan parte hartzeaz gain, geure kezka nagusiak eta bizitzako iparra bera ere geure diruan eta kontsumoan jarriak ditugu, zoritxarrez. Gero eta jakintsuagoak eta trebatuagoak izanagatik ere, bihotza lokartzen ari zaigu, itzaltzen.

Geure oinarri izan dugun familia ere aldatzen ari zaigu guztiz, giza balore asko baztertzen ari baikara. Geure "ama lurra" ere negozio-bide huts bihurtu zaigu.

Noiz arte esan ahal izango dugu geure herrian ekintza onak ugariagoak direla txarrak baino?

Jose Mari SARASUA



Okindegia - Gozotegia

Aretxabaleta

Loramendi, 6 - ☎ 943 77 17 19
 Basabe, 2 - ☎ 943 77 00 81

Aretxabaleta
 Bertako okina

**Apotzako
 San Migel
 merenderoa
 alokatzen da**

943 71 49 96

Aretz
 taberna

Markole, 5
 Tel.: 943 79 20 14



Arrantzale ugari joaten da Urkulura azken aldian

Heldu da arrantzan egiteko sasoia

Martxoaren 18an zabaldu zen arrantza egiteko epea. Orduetik, jende dexente joaten da Urkulura kirol hori praktikatzera. Garai baten arrain gorriak zeuden urtegian, baina, orain "carpin" izeneko arrain mota hori ia desagertuta dago. Gaur egun, amurraina eta "black-bass" delako arrainak daude gehienbat. Dena dela, arrantzan egiteko epea zabaldu denetik Urkuluko urtegiara arrantzale ugari hurbildu da.

Bakoitzak bere teknika eta sekretuekin arrainak amua noiz irentsiko zain egoten dira orduak eta orduak. Izan ere, kirol honek duen ezaugarria horixe da, pazientzia beharra.

Garai batean, gure herrian batipat, oso arrantzale gutxi zeuden. Orain, barrez, Urkulutik buelta bat ematen baduzue, konturatuko zarete, batzuk profesionalak eta beste batzuk hasiberriak direla, baina afizio handia dagoela.

Arrantza gutxiengo baten-tzako kirola kontsideratu izan da duela denbora gutxirarte. Gaur egun ordea, jende ugari du arrainak harrapatzen ibiltzeko afizioa.

Kirol arrantza, pertsona batek bere material propioarekin egiten duen kirol bezala definitu daiteke. Ez ditu, harrapaketa haundiak egiten, eta hartutako arraina bere kontsumo propiorako da. Hau da, kirol arrantza, afizio bat da praktikan jartzen duten gehienentzako.

Arrantzarako lizentzia

Europako estatu gehienek, arrantza arautzen duten legeak dituzte. Neurri hauek arrainen biziraupena zihurtatzeko hartzen dira. Horrela, urteko epe edo garai batzuetan bakarrik izaten da arrantza egiteko aukera. Arrainen ugalketa garaian, guztiz debekatua egoten da kirol hau egitea. Horrez gain, arrantza egiteko erabili beharreko material mota ere arautua dago. Norbaitek, arau hauek errespetatzen ez baditu isuna jasoko du. Isun batzuk diruz ordaintzen dira, beste kasu batzutan, ordea, arrantza egiteko lizentzia gal daiteke.

Edozein lekutan arrantza egiteko derrigorrezkoa da lizentzia edukitzea. Baimen agiria leku bakoitzeko estatuak ematen du. Ondorioz eskaera egin den lurraldean bakarrik da baliagarria. Euskal Herrian lehen aldiz lizentzia ateratzeak 4.000 pezeta inguru balio du. Lizentzia epea agortu denean, barrez, 2.000-3.000 pezeta ordaindu behar da baimena berrietzeko. Arrantza leku



“Edozein lekutan arrantzan egiteko derrigorrezkoa da lizentzia edukitzea”

publikoetan egiteko nahikoa izaten da lizentziarekin. Leku pribatuetan, ordea, baimen berezia eskatu behar da arrantza egiteko. Arrantza leku publiko guztietan ere ezin da kirol hau praktikatu. Badaude, ehi-zean bezala, arrantza egitea debekatuta dauden lekuak.

Beharrezko materiala

Kanaberarekin, hariarekin eta amuarekin egiten da arrantza. Kanaberak, amuak bezala mota desberdinetakoak daude gaur egungo merkatuan. Amuaren aukeraketa, esaterako, harrapatu nahi den arrain motaren

baitan dago. Amua arrainaren ahoan sartzen da, eta jakina, arrain bakoitzak aho desberdina izaten du. Honen arabera, amu mota eta tamaina ugari aurkituko ditugu dendetan.

Kanaberari dagokionez, antzeko aukera dago. Tamaina eta material desberdinetakoak daude. Berrienak, beirazko zuntzarekin edo karbonoarekin egindakoak dira. Salneurriei dagokionez, merkeenak 4.000 pezeta balio du. Garestienak, barrez, 52.000 pezetatik gora balio dezake. Azken hauek oso profesionalak izaten dira, eta izokinak arrapatzeko erabiltzen

dira gehienbat. Orainarte azaldutakoa arrantzan egiteko oinarrizko materiala izan da. Honez aparte, eta arrantza mota kontuan hartuta beste material batzuk daude. Hala nola, erreka edo urtegiaren barranean dauden arrainak harrapatzeko berunak edo amuari eransten zaizkion kutxarilak, kortxoa, moskito delakoa, aparejoak e.a.

Kanabera haria biltzeko erabiltzen den karreteak ere, mota desberdinetakoa izan daiteke. Tanbor finkoduna, mugikorrak edo bobina desberdina dutenak aurki ditzakegu.

Goian aipatutako oinarrizko materialaz gain, arrantzaleak, ezaugarri batzuk izan behar ditu. Garrantzitsuena, duda barik, pazientzia edukitzea da. Sarritan gertatu ohi da, goiz osoan arrainak amua noiz irentsiko zain egon eta etxera esku utzik bultzatzea. Horrelakoetan gomendio bat: ez etsi!

Ekaitz Valdezate

Arrantzalea

Hamalau urte besterik ez ditu, baina dagoeneko arrantzarako afizio handia dauka Ekaitzek. Duela 5 urte hasi zen kirol honetan. Ordutik sarri joaten da Urkulura arrantza egiten.

■ **Noiz hasi zinen arrantzan?**

■ Duela 5 urte ekin nion arrantza egiteari. Nire osabak afizio handia zuen, eta harek erakutsi zidan amu egokiena aukeratu, eta inguruko arrantza leku onenak zeintzuk ziren. Berehala erakarri ninduen eta ordutik nire afizioa ere bada arrantza.

■ **Zer behar da arrantzale ona izateko?**

■ Pazientzia handia behar da, amua nonbait harrapatuta geratzen bada, pa-

zientzia haundiarekin askatu eta tira egin behar zaio. Bestalde, pasa den egunean goizeko bederatziretan joan eta ordu batean itzuli nintzen etxera ezer harrapatu barik.

■ **Zein material erabiltzen duzu?**


■ Nik, normalean kutxarilaz egiten dut arrantzan. Kanaberari dagokionez, 1,75 metro luzera duen bat daukat. Plastikozko eta berunezko amuarekin ere aritzen naiz noizean behin.

■ **Urkulura joaten zara?**

■ Bai denbora librea dudanean hara joaten naiz. Lekua ona da, baina, orain arte, jakin dudanez, oso arrain gutxi harrapatu dituzte bertan.

■ **Urkuluko zein tokitan egiten duzu arrantzan?**

■ Oso gustuko dut txalupa dagoen tokian arrantzan egitea, eta sarri joaten naiz



bertara. Horrez gain, Urbaltz inguruan ere ibiltzen naiz.

■ **Arrantzan egiteko beste lekurik ezagutzen duzu?**

■ Bai, Albinara joaten naiz. Bestalde, Arabako Apricano auzoan ere aritu izan naiz. Baina, hara gutxiago joaten naiz. Izan ere, hango erre-

kan arrantzan egiteko baimen berezia behar da.

■ **Eguraldiak badu zer ikusirik arrantzan?**

■ Bai, esaten dute ekaitzak asko laguntzen duela.

■ **Arrantzatutako arrainak jaten dituzu?**

■ Nik ez, baina, aitak gustora jaten ditu nire partez.


Urkulu arrantza egiteko paradisia

Neska-mutikoak eskolatik urten bezain pronto joaten dira Urkulura bizikletan. Atzekaldean, motxilan sartuta, arrantzan egiteko kanabera, eta arratsaldean jateko merienda eramaten dute. Jubilatua ere hantxe ematen dute euren denbora librea, baina hauek motxila eraman beharrean arrantzan egiteko aulki txikia eramaten dute. Azkenik, langileak ilunkara aldera joaten dira Urkulura.



Izan ere, gehiengoaren esanetan, horixe izaten da arrainak arrapatzeko unerik onena.

Urkulu arrantzan egiteko leku aproposa dela esaten dute batzuk. Beste batzuk ordea, arrain gutxi dagoela diote. Horren arrazoia, beharbada, duela 8 urte ia desagertzeko bidean izan zen arrain gorriak dauka. Izan ere, orduan izurrite edo gaixotasun bategatik ia Urkuluko "Carpin" arrain mota desagertzeko bidean egon zen. Gaur egun gelditzen direnak, espezie horretako indartsuenak dira. Horrez gain, Urkulun Amurrainak, Perka amerikarrak (Black-Bass), Angilak eta Tenkak daude. Horietatik, jatorrizkoa den bakarra amurrain arrunta da. Gainontzekoak, jendeak urtegi botatakoak dira. Jatorrizko karramarroarekin ere antzeko zerbait gertatu zen. Duela urte batzuk jatorrizko karramarro ugari zegoen Urkulun. Orain, ordea, karramarro amerikarra gelditzen da. Dirudenez, gaur egun dagoen karramarro gorri hori sartu eta indartsuagoa izaterakoan, jatorrizkoa guztiz desagertu zen. Dena dela, debekatua dagoen arren, karramarro gorria ere harrapatu izan ohi dute herritarrek Urkuluko hainbat bazterretan.



Xakea

Fran eta Aitor Euskadiko xake txapelketara. Pasko astean Euskadiko xake txapelketan hartuko dute parte Fran Miguel eta Aitor Alcaidek. Txapelketa apirilaren 16an hasiko da eta sei egun inguru iraungo ditu. Atxalbaltako bi xake jokalaririk Arabako Hotel European pasatuko dituzte egun hauek xakean jokatzeko. Fran lehena ere izanda dago, Euskadiko xake txapelketan, baina Aitorrentzat lehen aldiz izango da. Zorte on!



Mendia

Alberto Iñurrategik 8000-koetara buelta. Hainbat proiektu ditu Alberto Iñurrategik eskuartearen. Aste honetan Jordaniara abiatu barri da, eta ekainean Himalayara itzuliko da, Hidden Peak 8.047 metrotako mendira. Bere berbetan momentu hunkigarria izango den arren, tontorra lortuz gero, Felix anaiarentzako omenaldi polita izango da. Jon Beloki eta Jon Lazkano lagun izango ditu espedizioan.



Squash, pala...

Squash, pala eta esku pilota txapelketak abian. Udaletzeko kirol zerbitzuak hiru txapelketa antolatu ditu maiatzeko, squash, pala eta esku pilota txapelketak, hain zuzen ere. Hirurak maiatzaren 5ean hasi eta ekainaren 23a bitartean jokatuko dira. Izena emateko apirilaren 27a arteko epea dago. Aurten beste batzuetan hiruretan jokatu izan duenak, ezingo du txapelketa guztietan parte hartu, eta aukeratu egin beharko du.



Pilota

Errasti anaiak Deba arroko final aurrekoetan. Joan den martizenean Deba arroko final aurreko lehen partidua irabazi zuten Ibon eta Unai Errastik Elgetako pilotarien aurka. Samur gailendu ziren Aretxabalaketako pilotariak, 11 eta 22ko aldeko emaitzaz. Orain bueltako partidua jokatu beharko dute, datorren martizenean Iturrigorri frontoian. Kanpoko partidua irabazi ondoren, finaletara iristeko aukera haundiak dituzte.

Aitak txiki-txikitatik eramaten zuen Markel Udalako bizikleta eta motor txapelketak ikustera. Badirudi hortik datorkiola trialean ibiltzeko afizioa. Dagoeneko hainbat txapelketetan hartu du parte, eta oraintsu benjaminetako Gipuzkoako txapeladuna izan da.

■ Noiztik praktikatzeko duzu triala, eta noiztik hartzen duzu parte txapelketetan?

■ Orain bi urte hartu nuen parte lehenengo aldiz Udalko proban. Iaz beste leku batzuetara ere joan nintzen, Zarautz, Arantzazu, Zegama eta Arrasateko txapelketetara esaterako.

■ Aurten Gipuzkoako txapelketan izan zara, zer moduz?

■ Nahiko ondo. Bost frogak izan ditugu guztira. Hondarribin 3. gelditu nintzen, Hernanin, Erreterin eta Urretxun 2. eta Udalan lehena. Sailkapen orokorrean, lehena izan naiz benjaminetan.

■ Nolakoak izaten dira probak?

■ Kirol honetan ez naiz batez ere aspertzen. Probetan bost zona desberdin pasa behar izaten ditut hiru alditan. Momentu guztietan ondo kontzentratuta joan behar dut, hankak lurrean ipini barik.

■ Nondik datorkizu zaletasuna?

■ Aitak txiki-txikitatik eramaten ninduen Udalko bizikleta eta motor txapelketetara. Aitak eta tiok ere badute trialeko motorra, eta niri betidanik gustatu izan zait.

■ Eta hemendik aurrera zein asmo dituzu?

■ Beste txapelketa batzuetara joateko asmoa dut, Euskadikora, eta "Zona norte" deitzen den beste batera ere bai.

■ Zer ezaugarri eskatzen ditu kirol honek?

■ Gauza berezirik ez, oreka

eta indarra. Beldurrik ere ez da izan behar, sarritan harriak salto edo eta errekatxak ere pasatu behar izaten ditugu eta.

■ Kolpe asko hartzen dira?

■ Bai, asko. Hanketan ubeldu mordo bat dauzkat, eta erloju pare bat ere apurtu ditut. Hegazean ere urten naiz bizikleta gainetik.

■ Non praktikatzeko duzu?

■ Baserri inguruan ibiltzen naiz. Nire ibilbideak nik asmatzen ditut, eta aitak noizean behin ere gertatzen dizkit ibiltzeko lekuak. Baratzeko hiru eskilarak igotzen ditut dagoeneko, jaitsi, barrez, gehiago.

■ Zein ekipamendu behar da trialean ibiltzeko?

■ Kaskoa eta bizikleta nahikoa dira. Gehienek jantzia eramaten dute, baina nik oraindik ez daukat. Bizikleta berezia behar da. Freno hi-

draulikoak ditu, eta erruera zabalagoak lurrari hobeto ebatzeko. Altueran ere trialeko bizikletak txikiagoak dira.

■ Datorren urtean txapelketa ofizialetan parte hartzeko aukera izango duzu. Zein da zure ametsa?

■ Bai. Aurten baino gehiago entrenatu beharko dut. Nire ametsa Iker Lezeta iazko munduko txapeladuna bezalakoa izatera iristea da.

Markel Uriarte

Trialsinean Gipuzkoako txapelketan irabazle



■ **EUSKAL SELEKZIOAREN INGURUKO MAHAI INGURUA** Apirilaren 26an Euskal selekzioaren inguruko mahai ingurua egingo da herrian. Esait, Euskal Selektzioaren aldeko iritzi taldeak antolatu du ekitaldia, eta kirolaz erlazionatutako hainbat herritarrek hartuko du parte bertan. Mahai inguruak Euskal selekzioaren gaiari indarra emateaz gain, herritarron artean gaia presente izatea du helburu. Mahai ingurua arratsaldeko 19:00etan izango da Murruxikoko lokalean.

■ FELIX IÑURRATEGI MENDI ESKOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiak Pakistaneko Balistan herrialdean goi mailako mendi eskola sortzeko proiektua abian jarri du. Eskolak Felix Iñurrategi izena izango du. Goi mailako mendi gidariak hezitzea izango du helburu, baita mendiko gidariei lan baldintza duinak bermatzea ere. Horretarako aste honetan bertan hango bi pertsona etorri dira hona, Benasque-ko Goi mendi eskolan formazioa jasotzera. Hilabete honetan zehar eskalada, segurtasun eta ezagutza teknika desberdinak ikasiko dituzte Benasqueko eskolan.

Iban Sastrek aurrean ibili gura du Euskal Herriko itzulian

Datorren astelehenean hasiko den Euskal Herriko itzulian korritzeko gertu dago Iban Sastre txirrindularia. Aurreko astean Kataluniako itzulia burutu ondoren, forma onean aurkitzen dela adierazi digu, eta bere helburua etapa batzuetan behintzat lehen hamarren artean bukatzea da. "Gogor lan egin eta zorte apur batekin ondo ibiltzea espero dut".

Profesionalak bere bigarren urtea iazkoa baino hobe izaten ari da Festina taldeko txirrindulariarentzat, iaz baino esperientzia

gehiago duelako batez ere. Bestetik, oso gustura dago taldean, izan ere, talde gogorra izateaz gain, karrera garrantzitsuak korritzen ari dira. Aurreko astean esaterako Kataluniako itzulian izan zen. Bi etapetan lehen hamarren artean helmugaratzea lortu zuen. Horrez gain, Milan San Remo klasikan ere hartu zuen parte eta baita Valentziako itzulian ere. Datorren zapatuan, bestalde, Gran Premio Indurain Lizarran egingo den lasterketan izango da Festinako txirrindularia. Zorte ona opa diogu.




Iban Sastre Festina taldeko txirrindularia

■ PAKO IRIONDO OMENDUKO DA EKAINAREN 3AN HERRIAN

Pako Iriondo omenduko da datorren ekainaren 3an Aretxabaletan. Garai batean *zona kost*a osatzen zuten mendi taldeek eskainiko diote aipatutako omenaldia. Omenaldia antolatzeko joan den martxoaren 8an hainbat mendi taldetako arduradunak elkartu ziren Murualde elkartearen. Omenaldia Aretxabaletan egiteak badu bere arrazoia. Izan ere, 1971. urtean Murualde elkartearen *Zona kost*ako mendi taldeek egindako batzarrean, Pako Iriondo Euskal Herriko federazio-ko lehendakari zara aurkeztea pentsatu zen. Urte hartan Iriondo Euskal Federazioko lehendakari izendatu zuten. Iaz utzi zuen Pakok lehendakari kargua, eta orain omenaldia egin gura diote *zona kost*ako mendi taldeek.

■ UDA FUTBOL TALDEAK BIGARREN DEIALDIA

Martxoaren 31a arteko epea ipini zuen Uda futbol taldeak, batzorderako hautagaiak aurkezteko. Momentuz ez du inork izenik eman, eta ekainaren 30a arte bigarren deialdi bat ireki dute.



Haizea

Zure gustoko giroa

Mitarte z/g
Aretxabaleta
Tel.: 943 79 85 57

IRIARTE

Umeen denda eta lentzeria



Durana, 8
Tel.: 943 79 10 96

BITXITEGIA ERLOJUDENDA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN KONPONKETA

Otalora, 4 (eliza aurrealdean)
Tel.: 943 77 13 57

Andoni eta Zuhaitz bi kideren artean zabaldu dute Ekin fisioterapia zentrua. Biak fisioterapeutak dira, Andoni Ormazabal urretxuarra eta Zuhaitz Aranzadi zumarragarra. Kanpotarrak izatea hasieran oztopoa izango den arren, lana ondo eginez bezeroen konfidantza irabazi gura dute.



Andoni Ormazabal "Fisioterapia oraindik ere berba ezezaguna da"

■ **Zergatik ireki duzue fisioterapia zentrua Aretxabaletan?**

■ Hemen horrelako zentzurik ez zegoelako. Urretxu eta Zumarragan nahikoa daude, eta Arrasaten, bestalde, jendea itxoitzen dago. Beraz, azterketa bat egin ondoren, leku egokia zela iruditu zitzaigun.

■ **Ezagutzen zenuten lehenago Aretxabaleta?**

■ Ni txirrindularitza karrerak korritzera etorrira nago. Zuhaitzen aitak, bestalde, hemen lan egiten du.

■ **Apustu gogorra beraz.**

■ Jakina, inbertsio haundia izan da, eta bizi gutzirako lan lekua ipini dugu hemen.

■ **Nolako bezeroak izango dituzue?**

■ Hiru bezero mota izango ditugu. Lagun Aro eta beste-lako aseguruetatik datozenak, kaleko jendea eta enprestatik datozenak.

■ **Zela dago fisioterapeuten lan merkatua?**

■ Fisioterapeuten zako lana egon arren, ez dago nahi haina zentru. Lana aurkitzea ez da samurra, baina ikasketak hauek zure kontu negozioa jartzeko aukera eskaintzen dute.

■ **Lehenengo eguna zelakoa izan da?**

■ Hiru bezero izan ditugu goizean, eta ez dago txarto.

■ **Eta hemendik aurrera zer?**

■ Lana gogor eta ondo egitea izango da gure erronka.

■ **Kanpotarrak izatea handicap haundia da?**

■ Bai, hasieran batez ere. Baina gero ahoz ahokoa izaten da publizitaterik garrantzitsuenak.

■ **Zertan espezializatuko zarete?**

■ Kirol arloan. Kirol arloko espezialitatea eginda daukat. Horrez gain, biok kirolean oso sartuta gaude, ni txirrindularitzan, eta Zuhaitz futboleant.

■ **Fisioterapia zabala da, kasu gehienak nolakoak dira?**

■ Kasu gehienak traumatologiako kasuak dira, istripuak, laneko istripuak, hezurrak, tendoiak...

■ **Jendeak badaki zer den fisioterapia?**

■ Oraindik ere berba ezezaguna da. Euskal Herrian ez dago fisioterapia eskolarik, ez eta horrelako ikasketarik egiteko aukerarik ere. Horrek eragina du ez jakintasan horretan.

■ **Lanetik kanpo, zer egitea gustatzen zaizu?**

■ Txirrindularitza. Lehen txirrindularia izandakoa naiz, eta orain laguntzaile lanetan aritzen naiz, Zumarragako txirrindulari taldeekin.




Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABAETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68




URBALTZ
TABERNA

Mitarte, 21 behea
Tfnoa.: 79 79 79
ARETXABAETA

5. IBILBIDEA

ARETXABAETA-AREANTZA-UGAZTEGI-URREXOLA GARAI-
URKULU-LARRINO-OTALA ZELAI-BASABE-ARETXABAETA

Luzera: 16,8 kilometro - Denbora: 4 ordu 35'



Arkarazora eta Mendiolara doan bidea hartuko dugu, Bainuetetik gora. Aldatz gogorra igoko dugu, bidegurutze batera iritsi arte. (0:10' 275 m.) Hemen ezkerretara hartu behar dugu, Bolina auzorantz. Aurrera eginez Bolinaga, Bolinaga Azpikoa eta Patxikuena baserrietara iritsiko gara, asfaltatutako bidea amaitzen den lekuraino. (0:20' 325 m.). Iturri bat eta aska bat aurkituko ditugu leku horretan. Gero aintzinako bidearen antza duen bide batetik aurrera egingo dugu, beste baserri gune batera iritsi arte. Areantza auzoan gaude. Eskumatara Mitarte Garai nekazalturismo etxea dago, eta bidearen azpialdean, barrez, Mitarte Azpikua eta Mitarte Handikua baserriak.

Asfaltatutako bidea jarraituz ezkerretara San Bizente ermita dago, eta aurrerago hau ere ezkerretara Etxebarri baserria. Abeltzantatik bizi dira Etxebarri baserriko Abasolotarrak. Bidea jarraituz, Areantza auzoko baserri multzora iritsiko gara. Leku horretan Andra Mari eliza eta iturri bat daude. Bidean aurrera jarraituko dugu, bidegurutze batera iritsi artean.

Eskumatara egingo dugu bidegurutzean. Aurrerago iturri publiko bat dago GI-3131 bidean. Hemendik Goroeta auzorantz joko dugu, Urkulu urtegia inguratuz.

Laster Koruetako Santiago eliza aurrez aurre izango dugu, eta hau pasata, gain batera iritsiko gara, non orain urte batzuk erromeria ospatzen zuten Koruetako auzotarrek. Leku horretan iturri bat eta bola tokiak daude. (0:49' 350 m.).

Asfaltatutako bidea amaitu eta bi txaleten artean pasatuz, aldatz haundia duen bide bat jaitziko dugu, buka-

eran Urkulu urtegia inguratzen duen bidearekin topo egin arte.


Urkulu inguratzen duen bide horretatik eskumatara jarraituko dugu. Ordu laurdenera gutxigorabehera uren txabola bat, zubi bat eta bidegurutze bat dagoen lekura iritsiko gara, Urbaltzera. Urkuluko erreka bidea zeharkatzen du hemen, eta eskumatara egingo dugu bidegurutzean, hormigoizko pistatik gora. Erreka aldamentetik gora igoko dugu, eta bidean harrobi bat ikusten da. Harrobi horretatik Urkuluko urtegia egiteko harria ateratu zen bere garaian (1:22' 335 m.).

Hormigoia bukatu eta grabatzko bidea jarraituko dugu, beste bidegurutze batera iritsi arte. Arbe baserriera joaten da hemendik, baita "beheko bidea" edo "errekako bidea" deritzon sendara ere. Baina guk pistatik igoko dugu, 180°ko buelta bat eginez. Horren ondoren aldatz gogor bati helduko diogu. Hormigoia bukatutakoan bidea lasaiagoa da, eta laster Urkulu erreka bidea zeharkatzen duen lekura iritsiko gara. Toki honetan guk egin dugun bidea bukatzen da, eta lehen aipatu dugun "errekako edo beheko bidearekin" bat egiten du (2:00' 485 m.).

Hemendik aurrera hormigoia eta grabatzko bidetik gora jarraituko dugu, erreka aldamentetik. 250 metro aurrerago ezkerretara senda motz bat dago. Bukarera iturri bat dago; bertatik erreka ikuspegi zoragarriak daude.

Aldapa leundu egiten da hemendik aurrera, eta erreka aldamentetik gorantz joko dugu. Apur batera erreka zeharkatu beharko dugu osterara ere. Aurrean ehun urtetik gorako pago bat aurkitzen da. Gure ezkerretara dagoen hezituraren aldamentetik jarraituz,





Bolina auzoa

laster Ugastegiko baserrietara iritsiko gara. Andarto mendia aurrean daukagu. (2:25' 645 m.).

Azken baserria pasatu eta gero, (Erdikoetxe 725 m.) pista jarraituko dugu. Gure eskumatara Santa Kurtz ermita pasatuz, (hau ez da bidetik ikusten), igotzen jarraituko dugu, "Ugastegiko kanpara" heldu artean. Hemen plubliometro baten ondoan uraren kanala pasatzen da. Haitz gain urtegiara doa kanal hau.

Aloña eta Aizkorri eskumatara, Hiruaitz eta Udalaitez ezkerretara eta Orkatzategi parean ditugula, pista aurrerantz jarraituko dugu. Bidean tumulu batzuk pasatuko ditugu, eta laster Urtao gainean egongo gara.

Gain horretatik harri soltea duen pistatik behera egingo dugu, Urrexola Garai auzora iritsiz. Baserri ondotik pasatzen da bidea, eta metro batzuetara ezkerretara pinudira doan bide estu bat dago. Bide horrek metal ura duen iturri batera garamatza. Berriz bidera itzuliz, Urkuluranzko bidea aldapan behera eta pinu artetik egingo dugu. (3:42' 350 m).

Urtegiara iritsitakoan bidea ezkerretara hartuta urtegia gurutzatu egingo dugu. Asfaltatutako bidetik jarraituko dugu, Larrino auzora doan bideguru-




Zaldiak bidean

tzeaz elkartu arte. Leku horretan Larrino auzora joateko bide seinalea aurkituko dugu, eta baita marra ori eta zuriak ere. Larrinorantz abiatuko gara aldapa gogor batetik. Bidean Zuatzu baserria pasa eta laster asfaltatutako bide batera iritsiko gara. Ezkerretara joko dugu, Larrinoko San Kristobal eliza begibistan dugula. Intxusia baserria pasatu eta laster beste bidegurutze bat dago. Ezkerretara hartuz, aldatz bat igo eta Larrinoko elizara helduko gara. Iturri bat, San Kristobal elkartea eta frontoi bat daude eliza ondoan. (4:18' 415 m.).


GI 4132 bidetik jarraituz, hainbat baserri pasatuko ditugu: Telleria, Larriño-Garai, Bernabena, Iturriotz, Iturrioz Garai da azkena. Azken horretara iritsi aurretik, bidea utzi eta beste bidezidor bati helduko diogu. Zelai baten goi aldetik doan senda da hau, eta Otala zelairaino bideratuko gaitu. Otala zelaiko iturri publikoa dago. Honen atzetik doan bidea jarraituz asfaltatutako bidea hartu, eta aurrerago beste bide batetik behera etorriko gara. Bukaeran berriz ere asfaltatuko bidea aurkituko dugu, eta bertatik jaitsi. Gero Basabe baserriaren aldamenetik herrira jaitsiko gara (4:57' 275 m.).



Urkulu urtegia



Kurtzebarri



Andarto

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekararren 3- Behea
Tel: 943 79 01 28

ITURGINTZA

J.J
Jose Jabier Irure

URA, GASA ETA KALEFAZIOA

943 79 07 34 - 943 79 31 87

OSKAR
GARAJEA

Tel.: 943 79 98 74
Fax: 943 71 24 59
Basabe Poligonoa, A-2-4

Lie

LURRINGEGIA
OPARI-DENDA

Mitarte, 18 ☎ 943 79 38 59



Komunikabideen erreinuan

Komunikabideen erreinuan bizi gara. Gizarte modernizatu honetan gauza gutxi ihes egiten dute medioen eskuetatik. Munduaren haunditasuna txiki gelditzen da, eta distantziak ezkatuta egiten dira. Aurrekoan esaterako, munduko beste puntan dagoen atxabaltar bat ikusi genuen Gara egunkarian. Azken orrialdean idazten duten mugalariak **Aitor Bengo**arekin elkartu ziren kanguroen kontinentean. Haraino joan eta euskaldunekin topo egin, hain da txikia mundua.

Beste atxabaltar batzuen aurpegia ere ikusi dugu komunikabideetan. Etxe honetakoa den, **Edorta Mendietarena** hain zuzen. Etor-kizuneko elektrogailuetan eta domotikan aditua da Edorta, eta mundu horretan burubelarri dabil lanean. Horren inguruan berba egin zuen lehenengo ETBn eta gero Tele 5n. Hurrengoan geuk harrapatu beharko dugu. Izango du zer kontatugure zuzendariak.

Etxeko komunikabidean jarraituz, aurrekoan afaria egin zuten Aretxagazetakoe urtetan zuten batzordekideei eskerrak eman eta barriei ongi-etorria egiteko. Urten dutenak, **Bego Arenaza**, **Arrate Arkauz**, **Aran-txa Antxia**, **Aintzane Lasa** eta **Pello Zubizarreta** izan

dira. Sartu direnak, barrez, **Ana Hidalgo** eta **Fernando Berrizbeitia**. Joan direnei eskerrak eta ongi-etorri barriei.

Beste barri hau oraindik ez dut komunikabideetan irakurri, baina jakin dudanez **Pako Iriondo** omenduko da Aretxabaletan. Antza denez, Murualde elkarte eta hainbat mendi elkarte daude ekitaldi horren atzean. Horrenbeste urtean Euskal mendi federazioko presidentea izan denak, merezitako omenaldia jasoko du.

Hurrengo protagonista ere ixilean ari da, baina lan haundia eginez. **Fran Miguelek** laugarren postua eskuratu zuen aurrekoan Durangon egin zen xake txapelketan. Xakeko nazioarteko maixu ugari izan ziren txapelketan, eta emaitza bikaina lortu zuen atxabaltarrak. Txalotzeko eta zoriontzeko lana egin zuen.

Bukatzeko, egun hauetan komunikabideetan pil-pilean egon den gaia gaztetxearena izan da. Zer gertatuko da herriko **gaztetxeaz**? Udala eta AGA hor ari dira negoziaketetan, eta ikusi egin behar zer gertatzen den. Hurrengo Aretxagazetan emango dugu horren barri, baina hori apirilaren 26an izango da. Ordurarte Aste Santua ondo ondo pasa.

M. J. Arkauz



Liburueta dago dena

Zer dago, bada, liburueta? Horixe galdetzen nion neure buruari hiruzpalau urte besterik ez nituela, aiton-amonen liburu-dendan nire aulkitxoan uzkuriturik egoten nintzean. Amona kaxen atzean esertzen zen; ama, erakusmahaiaren beste aldean, erosleen zain egoten zen. Haren atzean, apalak sabairaino iristen ziren, eta eskailera luze-luze bat zegoen, bi gako burdina luze bati eutsirik, ezkerre eta eskumara mugitu ahal izateko, horrela goiko apaletan zeuden liburueta iristearren.

Ez uste asperturik egoten nintzenik! Dendan bezeroren bat sartzen zenean, igartzen saiatzen nintzen ea nongo liburu eskatuko zuen, edo beheko apaletakoa edo goikoetakoa. Amak, artean gaztea, arina eta buruz azkarra, bazekien non zegoen liburu bakoitza; eskaileran gora igozten zen behar izanez gero, eta azal urdineko edo gorriko edo ubeleko liburu bat jaisten zuen, eta erosleari aurrean ipintzen zion. Ni harro nengoen amaz, eta gero eta jakin-min handiagoa nuen, ea zer ote zegoen liburueta. Beheko ilaretan ere azal urdin, gorri edo ubeleko liburuak zeuden, letra beltz txiki-txikiz beteak, baina haiek ez zeukaten nire liburu bezalako kolore politik!

Nire etxean denek irakurtzen zuten: amak, aitak, aiton-amonak. Haien buruak liburu gainera makurturik ikusita, batzuetan irribarre egiten zutela, beste batzuetan serio ipintzen zirela eta beste batzuetan orrialdea arreta handiz pasatzen zutela ikusita, neure buruari galdetzen nion ea non ote zebiltzan orduan. Hitz eginez gero, ez zidaten entzuten; azkenean, begiratzen zidatenean, bazirudien urruneko leku batetik zetozela. Zergatik ez ninduten berekin eramaten? Zer ote zegoen liburueta? Zein ote zen esaten ez zidaten sekretua?

Hurrena, irakurtzen ikasi nuen, eta aurkitu nuen liburuaren sekretua: hantxe zegoen dena; ez bakarrik amandreak, iratxoak, printzesak eta sorgin gaiztoak; han geunden zu eta ni, geure poz eta kezka guztiakin, geure irrika eta saminekin; hantxe dago ona eta txarra, egia eta gezurra, izadia, unibertsoa; hori guztia sartzen da liburueta. Zabal ezazu liburu, eta bere sekretu guztiak erakutsiko dizkizu.

Éva Janikovszky

APIRILA

7-15

■ ASTE SANTUKO OSPAKIZUNAK

Egun hauetan zehar Aste Santuko ospakizunak egingo dira.

8 DOMEKA**■ MENDIRA ETA SAGARDOTEGIRA**

URTEERA Murruxiko mendi elkarteak apirilaren 8rako Txindoki mendira urteera antolatu du egun guztirako. Gero sagardotegi batean bazkalduko da.

13 EGUAKOTXA**■ GURUTZ BIDEA**

Obretan dagoen parrokiatik hasita Gurutz bidea egingo da Isurietaraino goizeko 11:00etan hasita.

15 DOMEKA**■ ABERRI EGUNA**

Eguerdiko 12:00etan meza nagusia izango da. Ondoren ikurrinari agurra. Gero txikiteoa eta bazkaria izango dira.

19 EGUENA**■ BASOTXOKO BATZAR OROKORRA**

Basotxo jubilatuen elkarteak batzar orokorra egingo du 18:00etan Basotxon bertan. Ostein luntxa izango da.

23 ASTELEHENA**■ HITZALDIA**

Amaia Kortabarriak hunguento eta pomaden sendabideari buruzko hitzaldia eskainiko du. Loramendi elkarteak antolatuta arratsaldeko 19:00etan izango da udaletxe zaharrean.

26 EGUENA**■ MAHAI INGURUA**

Euskal selekzioari buruzko mahai ingurua. Esait, Udalak, eta Murruxiko mendi elkarteak antolatuta. 19:00etan Murruxikoko lokalean.

■ HITZALDIA

Zer da aromaterapia? izenburupean hitzaldia egongo da udaletxe zaharrean. 19:00etatik aurrera. Loramendi elkarteak antolatuta.

TXAPELKETAK**■ ESKU PILOTA, SQUASH ETA PALA TXAPELKETAK**

Aretxabaletako kirol zerbitzuak esku pilota, squash eta pala txapelketak antolatu ditu maiatzetik aurrera jokatzeko. Hiru txapelketak maiatzaren 5etik ekainaren 3ra bitartean egingo dira. Esku pilotakoa binakakoa eta 4 t'erdirekin izango da. Federatu barik egon eta esku pilotan jokatu gura duten guztiei zuzenduta egingo da. Squash txapelketari dagokionean, squashean jolasten aritzen den orori zuzenduta dago. Azkenik pala txapelketa Deba Garaiko pilotalekuan gomazko paleta jolasten aritzen direnentzat izango da. Txapelketa guztietan izena emateko azken epea apirilaren 27a da.

**ZINE KLUBA**

Apirilaren 12an

ALIEN EL OCTAVO PASAJERO

Zuzendaria: Ridley Scott.

Apirilaren 26an

WESTER TRILOGIA hasiko da

- POR UN PUÑADO DE DÓLARES
- LA MUERTE TENÍA UN PRECIO
- EL BUENO, EL FEO Y EL MALO

Zuzendaria: Sergio Leone.

Ordua eta lekua:

Gauko 22:30ean kultur etxean.



eguenetan
kultur etxean
22:30etik aurrera

ZATOZI!

Zorion agurrak



Ibon Perez de Labeaga
Apirilak 3
(5 urte) Zorionak eta ondo pasa etxe-koen partez zure urtebetetzean.



Maite Idigoras Merchan
Apirilak 4
(6 urte) Zorionak aita, ama eta Josuren partetik.



Jasone Uribealago
Apirilak 5
Zorionak Eneko eta Anderren partetik, eta baita tia Aneri ere.



Iñaki Carrillo Etxabe
Apirilak 5 (4 urte)
Zorionak aitaxo, amatxo, Elene eta familiakoen partetik.



Alfredo Irusta
Apirilak 6
Maitasunez zure emaztea eta semea. Ondo pasa eguna.



Lourdes Llodio
Apirilak 13
Zorionak zure lan-kideen partetik.



Lore Mar Barrutia
Apirilak 13
(8 urte)
Zorionak etxekuen partez.



Endika Martin
Apirilak 14
Ane, Nahia, Imma eta Karlosen partetik zorionak.



Markel Uriarte
Apirilak 14
Zorionak lagunena eta etxeko guztien partetik.



Lierni Castilla
Apirilak 15 (urte 1)
Zorionak lehengusu, lehengusinen partetik, eta musu bat tia Inman eta tio Karlosen partez



Asier Unanue
Apirilak 16
(8 urte)
Zorionak aita, ama eta Arianen partetik.




Lander Garcia
Apirilak 16
Zorionak udalekue-tako umeen partetik.



Miren Nekane Castellano Velasco
Apirilak 24
Gurasoen eta maite zaitugun guztien partetik zorionak.



Montse Velasco Frias
Apirilak 27
Zorionak zure guraso eta maite zaitugun guztien partetik.



Jon Zubia
Apirilak 28 (6 urte)
Zorionak Mariam, Aitor eta Endikaren partetik.

Sail honetan norbait zoriondu gura baduzu Aretxagazetara zuzendu (Durana, 11) edo eta 943 79 86 21 telefonora deitu.

Jaiotakoak

■ Amaia Irure Ayastuy

Martxoaren 24an.

■ Gorka Zumalde Etxabe

Martxoaren 24an.

■ Maialen Fernandez

Arenaza

Martxoaren 31n.

Hildakoak

■ Nerea Kortabarria

Amores

Martxoaren 31n. 17 urte.

■ Pedro Mari De Diego

Martinez

Martxoaren 31n. 34 urte.

Aretxabaleta

- Almen 943 71 49 07
- Aretxagazeta 943 79 86 21
- Telebista 943 79 86 21
- Basotxo 943 77 09 81
- Euskaltegia 943 79 21 68
- Gizarte-Laguntzailea 943 79 10 00
- Hezibide Elkartea 934 79 31 32
- Industrialdea 943 79 62 80
- Institutua 943 79 79 00
- Kiroletxea 943 71 26 28
- Kultur-Etxea 943 71 10 27
- Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
- Kurtzebarri B.H.I. 943 79 57 40
- Liburutegia 943 79 10 00
- Loramendi E.E. 943 77 09 70
- Ludoteka 943 79 05 81
- Mankomunitatea 943 79 30 90
- Murruxiko M.E. 943 79 93 74
- Musika Eskola 943 79 36 50
- Osasun zentroa 943 79 74 58
- Otalora 943 71 24 06
- Parrokia (Bulegoa) 943 79 18 42
- Pausoka Haur-Esk. 943 77 03 77
- Postetxea 943 79 28 31
- Santa Rita Ikast. 943 79 17 00
- Saretxo 943 71 26 56
- Taxi Geltokia 943 79 22 33
- Udal Bulegoak 943 79 10 00
- Udaltzaingoa 943 79 10 52
- Urats Gain 943 79 99 11

Udaltzaingoa

- Arrasate 943 79 14 39
- Bergara 943 77 91 06
- Eskoriatza 943 71 44 07
- Oñati 943 78 04 11

Larrialdiak

- SOS Deiak 112
- Eskualde-Ospitalea 943 03 53 00
- Ertzaintza 943 79 71 99
- Gurutze-Gorria 943 76 55 76
- Larrialdiak 943 46 11 11
- Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

Garraioak

- Pesa 902 10 12 10
- Renfe (Gasteiz) 945 23 02 02
- Renfe (Zumarraga) 943 72 15 15

Txistuak • Txaloak

Han eta hemen gure herria obretan dago. Eraikuntza barriak, bideak moztuta, plazetako konponketak... Hala ere, gauzak egiteko moduak eta moduak daude, eta Errotabarrin egin den bide mozketa behintzat ez da bate-re ondo egin. Gurera Eskoriatzatik datozenak, bidea debekatuta dagoela adierazten duen seinalea aurkituko dute bidean, Markole auzoruntz joateko adierazten du, baina hortik aurrera ez dago bestelako bide seinalerik. Horrenbesteko lana al da bide seinale pare bat jartzea? Obrako arduradunek errua dute, baina baita Udalak edo Ertzantzak ere, azken hauek teoriarik behintzat trafikoa arduratzen direlako. **Txistua** guztientzat, baina mesedez, beharrezko seinaleak lehenbailehen jarri.





Burgosera ikas-bidaia

Nazionalitatean zebiltzen mutilak Burgosera ikas-bidaian joan ziren orain 30 bat urte. Gaztetxoak artean, Angel Oxinaga maixu zutela, autobusean egin zuten joan-etorria. Bidean "Monumento al pastor", argazkian ageri den lekua bisitatu zuten. Gero Burgoseko katedralean ere izan ziren. Hemen Mio Ciden hilobia ikusteko 10 pezeta eskatu zieten ikasle bakoitzari. Angel maixuari ez zion batere graziaz egin diru kopuru hori ordaintzeak, artean kopuru handia baitzen. Azkenean hilobia ikusi barik itzuli zi-


ren etxera. Dena dela, egun ederra pasatu zuten, eta denak pozik etxeratu ziren.

Argazkikoak: 1- Angel Akixu, 2- Ramon Eraña, 3- Jose Ignacio Urteaga, 4- Juan Ramon Azkoitia, 5- Pedro Mari Bengoa, 6- Javier Etxenagusia, 7- Daniel Armentia, 8- Santi Cabero, 9- Juan Luis Iturbe, 10- Javier Arkauz, 11- Jesus Oteiza, 12- Juan Urkia, 13- Jose Angel Antxia, 14- Jose del Teso, 15- Jose Luis Arando, 16- Jose Makazaga, 17- Jose Mari Eraña, 18- Koldo Zubizarreta.

ren etxera. Dena dela, egun ederra pasatu zuten, eta denak pozik etxeratu ziren.

Argazkikoak: 1- Angel Akixu, 2- Ramon Eraña, 3- Jose Ignacio Urteaga, 4- Juan Ramon Azkoitia, 5- Pedro Mari Bengoa, 6- Javier Etxenagusia, 7- Daniel Armentia, 8- Santi Cabero, 9- Juan Luis Iturbe, 10- Javier Arkauz, 11- Jesus Oteiza, 12- Juan Urkia, 13- Jose Angel Antxia, 14- Jose del Teso, 15- Jose Luis Arando, 16- Jose Makazaga, 17- Jose Mari Eraña, 18- Koldo Zubizarreta.

Argazkia eta informazioa: Koldo Zubizarreta.



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

Loramendi kirolak

Udaberrirako prest!

Arrasaten

www.loramendikirolak.com

FRUITATEGIA

Barazki eta frutetan espezialitatea

Tel.: 943 79 96 43

ERREKABARREN

ILEAPAINDEGIA

Irudi

ILE APAINDEGIA
ESTETIKA
SOLARIUMA

Tel.: 943 79 80 90

IRUDI

URDAITEGIA

kalitatezko produktuak

Tel.: 943 79 75 42

JUANTXO

ERREKABARREN

DROGERIA

BARRUKO ERROPETAN AUKERA HAUNDIA

Tel.: 943 79 59 85

LEINTZ-ROSI

OINETAKO DENDA

ZAPATEN KONPONKETAK EGITEN DIRA

Tel.: 943 79 59 85

MARI KARMEN

ARRANDEGIA

ITSASOKO PRODUKTUAK

Tel.: 943 79 31 59

MIREIA



ETXE MOBEL
MUEBLES ALTZARIAN

Araba Etorbidea 5 •
Tel. / Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE




RKUZ
ALTZARIAN

Araba etorbidea 20 •
Tel. / Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



RKUZ
ELEKTRAGAILUAN

Asunción, 1 •
Tel. / Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA

expert 



RKUZ
SUHARDE INTEGRALA

Milarte 3 •
Tel. / Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA

FAGOR 

50 urte baino gehiago gure bezeroen zerbitzura.

Eskerrik asko emandako konfiantzagaratik